





## 3 IBILBIDE ARRASATE EZAGUTZEKO / 3 RECORRIDOS PARA CONOCER MONDRAGÓN

### ERDI AROKO IBILBIDEA / RECORRIDO MEDIEVAL

1. Beheko atea / Portal de abajo
2. Udaletxea / Ayuntamiento
3. Andikano Loiola Jauregia / Palacio Andikano Loiola
4. Mendia Jauregia / Palacio Mendia
5. Juan Bataiatzailearen parrokia/ Parroquia San Juan Bautista
6. Iturriotz atea / Puerta de Iturriotz
7. Bañez Artazubiaga Jauregia / Palacio Bañez Artazubiaga
8. Ferrerías kalea / Calle Ferrerías
9. Olarteko atea / Puerta de Olarte
10. Monterron Jauregia / Palacio Monterron
11. San Frantzisko eliza eta komentua / Iglesia y convento de San Francisco
12. Okendo Jauregia / Palacio Okendo

### INDUSTRIA ONDAREA / PATRIMONIO INDUSTRIAL

1. Unión Cerrajerako bulegoak /Antiguas oficinas de Unión Cerrajera UCEM
2. Union Cerrajera lantegiko eraikin nagusia / Edificio principal de la fábrica UCEM
3. Unión Cerrajerako Aprendices eskola / Escuela de Aprencices de UCEM
4. Etxetxikiak / Casas Pequeñas
5. ELMA
6. Vasco-Navarro Tren geltokia / Estación del tren Vasco-Navarro

### ARNASGUNEAK / ZONAS VERDES

1. Santa Barbara parkea / Parque Santa Bárbara
2. Monterron parkea / Parque Monterron

# ARRASATE-MONDRAGON 360º

## Tour birtual murgiltzailea
## Tour virtual inmersivo




ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

AZE elkartearen laguntzarekin
con la colaboración de AZE.

## SARRERA / INTRODUCCIÓN

**Arrasate entzutean industria eta kooperatibismoa datorkigu burura. Dudarik gabe, XX. mendean nabarmendu ziren industrializazioa eta kooperatibismoaren garapena. Hala ere, denboran atzera eginez gero, asko dira herriak bizi izandako gertaera esanguratsuak.**

Erdi Aroan, 1260. urtean, Alfontso X.ak Hiri Gutuna eman zion hiribilduari, eta jatorrizko izena (Arrasate) aldatu zion eta Montdragón jarri.

Hiribildua osatzen zuten luzetarako hiru kalek eta zeharkako bi kantoik. Harrizko harresi batek inguratzen zuen herria, eta sei ate zeuden. Gaur egun hiru bakarrik geratzen dira.

Urte batzuk geroago, hazkunde ekonomikoren eta demografikoaren ondorioz, herria hiribildutik kanpo hazten hasi zen, eta errebalak eraikitzen. 1448an, bandoen arteko liskarren ondorioz, sute handia izan zen hiribilduan eta errauts bihurtuta geratu zen.

XVI. eta XVII. mendeetan, herria aberastu egin zen burdingintzari esker, eta Arrasateko altzairua oso ezaguna izan zen nazioartean. Hiri garapena eman zen mende horietan eta eraikin esanguratsu asko egin ziren.

XVIII. mendean, Ilustrazioaren baitan, herriko plaza nagusia sortu eta udaletxea eraiki zen bertan. Gainera, berrikuntza handiak egin ziren, ate batzuk kendu eta beste batzuk arkuekin ordezkatu ziren.

Proposatzen dizuegu ibilbide txiki bat egitea Arrasateko Erdi Aroko kaskoan. Herriko toki eta eraikin esanguratsuenak ezagutu ahal izango dituzue eta une batez Erdi Arora bidaiatu.

**Si hablamos de historia reciente, Mondragón es, sin duda, sinónimo de industria y cooperativismo. Sin embargo, son muchos los hechos históricos ocurridos en la villa a lo largo de los siglos.**

En plena edad Media, en el año 1260, el rey de Castilla, Alfonso X concedió la carta-puebla a la villa y sustituyó su original denominación (Arrasate) por la de Montdragón.

La villa, se hallaba estructurada por tres calles longitudinales y dos cantones transversales. Estaba circundada por una muralla de piedra que la protegía. Contaba con seis puertas, de las cuales se conservan tres.

Años más tarde, debido al desarrollo económico y demográfico, la villa creció extramuros y surgieron los arrabales. En 1448, como consecuencia de las luchas entre bandos, se produjo un gran incendio y la villa quedó reducida a cenizas.

A lo largo de los siglos XVI y XVII el municipio se enriqueció gracias a la industria del hierro y el acero que fue muy apreciado a nivel internacional. Hubo un gran desarrollo urbano y se edificaron varios edificios singulares.

En el siglo XVIII, en el marco de la Ilustración, se creó la plaza mayor y se construyó el Ayuntamiento. Además, se realizaron grandes obras de mejora, algunas puertas fueron eliminadas y otras fueron sustituidas por arcos.

Os proponemos realizar un pequeño recorrido por el casco medieval de Arrasate. Podreís conocer algunos de los lugares más emblemáticos de la villa y transportaros por un momento a la Edad Media.

## ONDARE HISTORIKOA / PATRIMONIO HISTÓRICO

### 1. Beheko atea

Ate nagusia eta handiena da. Errege bidea izandakoaren sarrera da, ate bakarra sarbidea duena hiribilduko 3 kaleetara.

### Portal de Abajo

Es la puerta más grande y a su vez, la principal. Era la puerta de entrada a la villa por el Camino Real, dando acceso a las tres calles de la villa.



### 2. Udaletxea

XVII. mendeko eraikuntza barrokoa da. Martin Karrera arkitektoaren lana da. Harlanduz egina dago. Behe oina bost arkuk osatzen dute, erdialdean balkoi handi bat dago, burdin sarez eginikoa, eta goian herriko armarria, frantses rokoko estiloaren eragina duena. Arkupeko zutabeetan, harrian landuta, orduko neurriak ikusi daitezke.

### Ayuntamiento

Construcción de estilo barroco del siglo XVII. Es una obra del arquitecto Martin Karrera. La planta de este edificio, realizado en sillar, está compuesta por cinco arcos. En la zona central podemos ver un gran balcón corrido y arriba el escudo de armas de la villa, con influencia de estilo francés rococó. En las columnas centrales, podemos apreciar algunas medidas utilizadas en la época.





### 3. Andikano Loiola jauregia

XVII. mendeko herreriano estiloko jauregia. Egurrezko galeria batek ezkutaturik uzten ditu harlanduzko aurrealdea eta familien armarriak.

### Palacio Andikano Loiola

Palacio de estilo herreriano del siglo XVII. La fachada de sillar y los escudos familiares se hallan ocultos por una galería de madera.

### 4. Mendia jauregia

XIX. mendean eraikitakoa. Mendia familiak orube bat erosi zuen, non geroago jauregia eraiki zen, eta hortik datorkio izena. Santa Ageda bainuetxeko jabeak ziren.

### Palacio Mendia

Palacio del siglo XIX. El nombre de Mendia procede de la familia que adquirió el solar donde construyó el actual palacio. Eran los propietarios del afamado balneario de Santa Águeda.



### 5. San Juan Bataiatzailearen parrokia

Gotikoaren garaiko eliza (XV), zaharberritua 1990eko hamarkadan. 1721ean eraiki zuten kanpandorrea arku ojibal banatan; hortik oinezkoak pasatu daitezke. Ate nagusiko tinpanoak San Juanen irudi bat du. Eguzki izpi bat sartzen da arkutik, eta irudia argitzen du San Juan egunean. 2016az geroztik eliza honetan ehortzi dira Jose Maria Arizmendiarrietaren gorpuzkiak.

### Parroquia San Juan Bautista

Iglesia de época gótica (XV), restaurada en la década de 1990. Con posterioridad (1721) se construye la torre campanario sobre sendos arcos ojivales que permiten el tránsito peatonal bajo ellos. El tímpano de la puerta principal alberga una figura de San Juan. Un rayo de sol, se cuela por el arco e ilumina la imagen el día de su festividad. Desde 2016 los restos de José María Arizmendiarrieta descansan en esta iglesia.





### 6. Iturriotz atea

Izena zor dio Iturriotz iturriari, harresitik kanpo dagoena eta manposteriako bobeda bitxia duena, zeinaren lehen aipamena baita 1392koa.

### Puerta de Iturriotz

Debe su nombre a la fuente Iturriotz, situada extramuros que presenta una curiosa bóveda de manposteria cuya primera mención data de 1392.



### 7. Bañez Artazubiaga jauregia

XVI. mendean eraikia, harlanduz eginiko jauregi hau Bañez de Artazubiaga familiarena zen. Oñatiko jaun gebaratarren menpe ez egoteko, Bedoñan (orain Arrasateko baserri auzoa) zeukaten dorretxea erre eta hiribildura jaitsi ziren. Gertatutakoaren adierazgarri gisa, aurrealdean dagoen armarria ikusi daiteke

.

### Palacio de Bañez Artazubiaga

Construido en sillar en el siglo XVI, perteneció a la familia Bañez de Artazubiaga. Con el objeto de no someterse al dominio de los Gevara de Oñati, incendiaron la casa-torre que poseían en Bedoña (barrio rural de Arrasate) y bajaron a la villa. En la fachada se puede apreciar el escudo, como señal del acontecimiento.



### 8. Ferrerias kalea

Erdi Aroaz geroztik, metalurgia izan zen Arrasateko ekonomiaren ardatza, eta orain ere bada. Olagizonek kale honetan egiten zuten lana. Udalatx menditik burdin mea atera eta hona ekartzen zuten lantzeko. Arrasateko altzairua famatu egin zen Europan XV, XVI eta XVI. mendeetan.

### Calle Ferrerías

Desde la Edad Media, la metalurgia ha sido y es el eje de la economía de Arrasate. Precisamente en esta calle es donde se encontraban los herreros. El mineral, se extraía de la peña Udalatx y se traía aquí con el fin de transformarlo. El acero de Mondragón fue bien conocido a lo largo de los siglos XV, XVI y XVII.



### 9. Olarteko atea

Geratzen diren hiru ateetatik zaharrena da eta Zurgin kantoira du sarbidea. "Krimenaren kantoi" moduan ere ezagutzen da, Santiago Elías de Aranguren, Monterrongo kondea eta alkatea, bertan hil baitzuten 1816an. **Harresia**. Olarte kaleko goialdean ikusi daitezke erdi aroko harresiaren zatiak.

### Puerta de Olarte

La más antigua de las tres puertas que se conservan. Da acceso a Zurgin Kantoia, también conocido como el cantón del crimen. Esto se debe a que, el que fuera Conde de Monterrón y alcalde, Santiago Elías de Aranguren, fue asesinado aquí en 1816. **Muralla**. Se encuentran paños de muralla medieval en la parte alta de la calle Olarte.



### 10. Monterron jauregia

XVII. mendeko jauregia, estilo barroko-herrerianokoa; soila eta apaindura gabekoa. Monterrongo kondeek eraiki zuten, bai eta haren atzealdean dagoen parke ederra ere. Jauregitik izen handiko pertsonaia ugari pasatu dira, hala nola Felipe V.a edo Isabel II.a.



### Palacio de Monterron

El palacio, así como el hermoso parque ubicado en su zona trasera, fue construido por los condes de Monterrón en el siglo XVII. Es de estilo barroco herreriano, sencillo y sin adornos. Por él han pasado personalidades como Felipe V o Isabel II.

### 11. San Frantzisko eliza eta komentua

Frai Migel Aranburuk eginiko eraikin erlijiosoa da. Gaur egungo elizaren egitura XVII. mendekoa da eta herrerianotzat jo daiteke. Juan de Araoz Uriarte arrasatearra Ameriketan aberastu, eta irabazitako dirua eman zuen eliza, komentu eta eskola bat egiteko. 2007. urteaz gero komentua izan zena Kulturate bilakatu da, Arrasateko kultur etxea.

### Iglesia y convento de San Francisco

Esta construcción religiosa es de estilo herreriano, fue realizada por Fray Miguel de Aramburu en el siglo XVII. Juan de Araoz Uriarte, un acaudalado mondragonés que hizo su fortuna en América, quiso donar su dinero para la construcción de un convento iglesia que albergase un colegio. A Partir de 2007, el convento se convirtió en Kulturate, casa de cultura de Arrasate.



### 12. Okendo jauregia

XVII. mendean eraikia, herreriano-barroko estiloko jauregia. Harlanduzko aurrealdea dauka, eta Barrutia familiaren armarria ikusi daiteke.

### Palacio Oquendo

Este palacio de estilo herreriano barroco fue construido en el siglo XVII. Presenta una fachada de sillería en la que se puede apreciar el escudo de la familia Barrutia.



## ARNASGUNEAK / ZONAS VERDES

### 1. Santa Barbara parkea

Muino bat da, Alde Zaharraren alboan dagoena. Tontorrean, gaztelu baten aztarnak ikusi daitezke, eta alboan brontzezko dragoi bat, herriko ikurra dena. Hiribilduaren ikuspegi ederra dago bertatik.

### Parque Santa Bárbara

Se halla en una colina situada en el extremo oeste del casco medieval. En su cima se encuentran los restos de un castillo, así como una escultura de bronce símbolo de la villa, el dragón.



### 2. Monterron parkea

Lorategi bat da, XVII. mendean Monterrongo kondeek jauregiarekin batera eraikitakoa. Parkean sekuoia erraldoi bat dago, 1997an izendatua Gipuzkoako zuhaitz berezia.

### Parque Monterron

Este jardín, fue diseñado junto al palacio de Monterron en el siglo XVII. En el parque se encuentra entre otras, una sequoia gigante considerada en 1997 como árbol singular de Gipuzkoa.

## INDUSTRIA ONDAREA / PATRIMONIO INDUSTRIAL

**Industrializazioak iraultza urbanistiko berria eragin zuen XX. mende hasieran. Lantegi eta tailer berriak zabaldu ziren, eta guztien artean nabarmentzen dira "Union Cerrajera" (1906) eta "ELMA" (1924). Lantegi horiek gaur egungo Arrasateko industria ondarea osatzen dute, eta ondorengoak horren adibide dira:**

La industrialización supuso una nueva revolución urbanística y se levantaron talleres por doquier a principios del siglo XX; destacan la Unión Cerrajera (1906) y ELMA (1924). Estas fábricas son parte del considerable patrimonio industrial de Mondragón, siendo testimonio de ello los siguientes ejemplos:

### 1. Union Cerrajerako bulegoak

Gaur egun Hotel Mondragon.

### Antiguas oficinas de Unión Cerrajera UCEM

Hoy hotel Mondragón.



### 2. Union Cerrajera lantegiko eraikin nagusia

Gaur egun Kulturola, Arrasateko Udal Euskaltegiaren eta hainbat kultur elkarteen egoitza.

### Edificio principal de la fábrica UCEM

Hoy Kulturola, sede del Euskaltegi Municipal y varias asociaciones culturales.




### 2. Union Cerrajerako Aprendices eskola

Gaur egun Juan Arzamendi Musika etxea izendatuta, Arrasate Musikal eta Goikobalu Abesbatzaren egoitza.

### Escuela de Aprendices de UCEM

Hoy denominada Juan Arzamendi Musika Etxea, sede de Arrasate Musikal y el Coro Goikobalu.




### 4. Etxetxikiak

Langileentzako etxe multzoa, 1920ko hamarkadan eraikitakoa.

### Casas Pequeñas

Grupo de viviendas construidas para los trabajadores en len la década de 1920.



### 5. ELMA

1924an sortutako lantegia. Eraikin nagusia1930an eraiki zen.

### ELMA

Fábrica fundada en 1924. Su edificio principal data de 1930.



### 6. Vasco-Navarro tren geltokia:

1919an inauguratua, gaur egun Gaztelekua kokatzen da. Azken bidaia egin zuen 1967ko abenduaren 31ean.

### Estación de tren del Vasco-Navarro:

Inaugurada en 1919, alctualmente se ubica el Gazteleku. Realizó su último viaje el 31 de diciembre de 1967.



Euskotren/Burnibidearen Euskal Museoaren Artxiboa